

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Hutsen zuzenketa, 2022ko abenduaren 26ko ALHAOn (148. zk.) argitaratutako 3553 zenbakiko iragarkiarena, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren oinarri orokorreari eta espezifikoei buruzkoa

Alkatearen 2022ko abenduaren 16ko Dekretuaren bidez, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesua arautzeko oinarri orokorrak eta espezifikak onetsi ziren, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.2 artikulua araberan. Prozesu horren deialdia 2022ko maiatzaren 30eko ALHAOn (62. zk.) argitaratu zen.

Iragarki horretan akats bat aurkitu denez, honen bidez zuzentzen da:

Honako hau dioen lekuan:

7.3. Eskabideak aurkezteko lekua.

7.3.1 Eskaerak eta eskatutako dokumentazioa leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

a) Eskaera elektronikoa egoitza elektronikoan:

Eskaera elektronikoa aurkeztea hautatuz gero, egoitzan onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitarteko bat izan beharko da (<https://www.iruraiz-gauna.com/euskara.asp> eta Herritarren ataria, Eskabide orokorra).

Beste hau esan behar du:

7.3. Eskabideak aurkezteko lekua.

7.3.1 Eskaerak eta eskatutako dokumentazioa leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

a) Eskaera elektronikoa egoitza elektronikoan:

<https://epeople2023.araba.eus/eu/izapidetu/iruraiz-gauna>.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Azilu, 2023ko apirilaren 20a

Alkatea

AMAYA SAGASTI JIMÉNEZ DE VICUÑA